EIBARKO UDALA
www.eibar.net

# [e]kultura

MAIATZA 2009 *MAYO*

78



inaugurazioa / *inauguración*

## Armagintzaren Museoa
## *Museo de la Industria Armera*

erakusketak / *exposiciones*

## Argazkilaritza Maiatzean

jaiak / *fiestas*

## Santa Kurutz, Letras Galegas
## San Isidro, Euskal Jaia

## MAIATZA 2009 MAYO


**eguna** *día* — **orr.** *pag.*

**1** ARGAZKILARITZA MAIATZEAN
**erakusketak** ***exposiciones*** . . . . 4
**2** SANTA KURUTZEKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . 17
**3** SANTA KURUTZEKO JAIAK
**jaiak** ***fiestas*** . . . . 17
**4** TOKA, PETANKA IGEL-TOKA ETA MAHAI JOKUEN TXAPELKETA
**Pertsona Nagusien XVI. Hamabostaldia** . . . . 19
*CURSO DE INTERNET BÁSICO*
**KZGunea** . . . . 21
*FORO DE PLANTAS: AGRIMONIA Y VARA DE ORO*
**Ikasten** . . . . 21
**5** FLAME Y CITRON
**irudia** ***imagen*** . . . . 10
TXANGOA: MILAGRO
**Pertsona Nagusien XVI. Hamabostaldia** . . . . 19
*EL CUENTO LITERARIO. ¿UNA FORMA DE NARRATIVA?*
**Ikasten** . . . . 21
**6** *LOS NIÑOS Y LAS NIÑAS Y SU SALUD EMOCIONAL*
**hitzaldia** ***charla*** . . . . 20
*CURSO SOBRE LAS HABILIDADES PARA LA VIDA EN LAS RELACIONES PADRES/MADRES - HIJOS/HIJAS*
**ikastaroa** ***curso*** . . . . 20
*LA PARTICIPACIÓN EN EL ÁMBITO DE LAS PERSONAS MAYORES*
**Pertsona Nagusien XVI. Hamabostaldia** . . . . 21
**7** ESCONDIDO EN BRUJAS
**irudia** ***imagen*** . . . . 11
TXOKOLATE-JANA
**Pertsona Nagusien XVI. Hamabostaldia** . . . . 19
*CONCILIACIÓN DE VIDA FAMILIAR Y LABORAL*
KALEETAN KANTUZ
**Ikasten** . . . . 21
**8** ARGAZKILARITZA MAIATZEAN
**erakusketa** ***exposicion*** . . . . 3
*LA CANTANTE CALVA*
**antzerkia** ***teatro*** . . . . 8
SUKALDARITZA LEHIAKETA ETA HERRI BAZKARIA
PERTSONA NAGUSIENDAKO DANTZALDIA
**Pertsona Nagusien XVI. Hamabostaldia** . . . . 19
IT-TXARTELA
**KZGunea** . . . . 21
**9** *UN ESTUDIO FOTOGRÁFICO EN LA CALLE. RETRATOS DE GALERÍA EN EL CORAZÓN DE LA CIUDAD*
**ikastaroa** ***curso*** . . . . 20
KALEETAN KANTUZ
**Ikasten** . . . . 21
**10** LUR SAGAR
**dantza** ***danza*** . . . . 16
**11** UEU. 37. UDAKO IKASTAROAK
**ikastaroak** ***cursos*** . . . . 20
DICOSANA JAIETAN
**taillerra** ***taller*** . . . . 20
**12** MI NOMBRE ES HARVEY MILK
**irudia** ***imagen*** . . . . 10
IT-TXARTELA
**KZGunea** . . . . 21
*EL CUENTO LITERARIO. ¿UNA FORMA DE NARRATIVA?*
***Ikasten*** . . . . *21*
**13** *CURSO SOBRE LAS HABILIDADES PARA LA VIDA EN LAS RELACIONES PADRES/MADRES - HIJOS/HIJAS*
**ikastaroa** ***curso*** . . . . 20
ARMAGINTZAREN MUSEOA
*MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA*
**inaugurazioa** ***inauguración*** . . . . 24
**14** CUESTIÓN DE HONOR
**irudia** ***imagen*** . . . . 11
UMEEN BERTSO JAIALDIA
**jaialdia** ***festival*** . . . . 12
*CONCILIACIÓN DE VIDA FAMILIAR Y LABORAL*
**Ikasten** . . . . 21
**15** XXVI DIA DAS LETRAS GALEGAS
**jaiak** ***fiestas*** . . . . 17
*METODOS DE TRABAJO EN PHOTOSHOP CS4*
**ikastaroa** ***curso*** . . . . 20































## MAIATZA 2009 MAYO


| eguna día | | orr. pag. |
|---|---|---|
| **16** | XXVI DIA DAS LETRAS GALEGAS | |
| | **jaiak *fiestas*** | 17 |
| | ABONTZAKO JAIAK | |
| | **jaiak *fiestas*** | 18 |
| **17** | XXVI DIA DAS LETRAS GALEGAS | |
| | **jaiak *fiestas*** | 17 |
| | ABONTZAKO JAIAK | |
| | **jaiak *fiestas*** | 18 |
| | *BANDA DE MÚSICA* CIELITO MUSIKA BANDA | |
| | **musika *música*** | 19 |
| | *HOMENAJE Y DESPEDIDA A NUESTRO VIEJO COSO* | |
| | **zezenketa *toros*** | 19 |
| **18** | NAZIOARTEKO MUSEOEN EGUNA | |
| | *DÍA INTERNACIONAL DE LOS MUSEOS* | |
| | **museoa *museo*** | 24 |
| | ABONTZAKO JAIAK | |
| | **jaiak *fiestas*** | 18 |
| | *CURSO DE INTERNET BÁSICO* | |
| | IT-TXARTELA | |
| | **KZGunea** | 21 |
| **19** | SÓLO QUIERO CAMINAR | |
| | **irudia *imagen*** | 10 |
| | XLIV. EUSKAL JAIA | |
| | **jaiak *fiestas*** | 14 |
| | *EL CUENTO LITERARIO. ¿UNA FORMA DE NARRATIVA?* | |
| | **Ikasten** | 21 |
| **20** | *CURSO SOBRE LAS HABILIDADES PARA LA VIDA EN LAS RELACIONES PADRES/MADRES - HIJOS/HIJAS* | |
| | **ikastaroa *curso*** | 20 |
| **21** | IT-TXARTELA | |
| | **KZGunea** | 21 |
| | *FORMACIÓN Y FUNCIONES DE LA ONU* | |
| | *VIDEOCONFERENCIA: OTEIZA* | |
| | **Ikasten** | 21 |
| **22** | XLIV. EUSKAL JAIA | |
| | **jaiak *fiestas*** | 14 |
| | BERTSOA&JAZZA | |
| | **musika *música*** | 16 |
| | GAZTETAN UDABERRIA | |
| | **Astixa** | 21 |
| **23** | XLIV. EUSKAL JAIA | |
| | **jaiak *fiestas*** | 14 |
| **24** | ARGAZKI RALLYA / *RALLY FOTOGRÁFICO* | |
| | **irudia *imagen*** | 11 |
| | *BANDA DE TXISTULARIS* USARTZA TXISTULARI BANDA | |
| | **musika *música*** | 13 |
| | XLIV. EUSKAL JAIA | |
| | **jaiak *fiestas*** | 14 |
| **25** | DISCOSANA JAIETAN | |
| | **tailerra *taller*** | 20 |
| | GAZTETAN UDAN | |
| | **Astixa** | 21 |
| **26** | LA OLA | |
| | **irudia *imagen*** | 10 |
| | *EL TEATRO EN EL SIGLO XXI* | |
| | **Ikasten** | 21 |
| **27** | *CURSO SOBRE LAS HABILIDADES PARA LA VIDA EN LAS RELACIONES PADRES/MADRES - HIJOS/HIJAS* | |
| | **ikastaroa *curso*** | 20 |
| **28** | UMEEN BERTSO JAIALDIA | |
| | **jaialdia *festival*** | 12 |
| | *EXCURSIÓN: CUEVAS DE EKAIN* | |
| | KALEETAN KANTUZ | |
| | **Ikasten** | 21 |
| **29** | PIANO KONTZERTUA / *CONCIERTO DE PIANO* | |
| | **musika *música*** | 13 |
| | UDAN JOLASETAN | |
| | **Astixa** | 21 |
| | IT-TXARTELA | |
| | **KZGunea** | 21 |
| **30** | SOSTOA 25 URTE. KONTZERTU BEREZIA | |
| | **musika *música*** | 12 |

# ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

**Eibarko Klub Deportiboko argazkilaritza taldeak** ez dio hutsik egingo aurten ere maiatzari. **Sei erakusketa** eta **bi tailer** libre antolatu dituzte (bata edizio digitalari buruz eta bestea kalean jarritako argazki estudio baten inguruan). Aurtengo urrian, gainera, Deportiboko argazkilaritza taldeak **Espainiako argazki saria** jasoko du, elkarteen alorrean.



## ALBERTO RODRÍGUEZ

***Ampliando horizontes***

**apirilak 30 *abril***
**maiatzak 24 *mayo***
**PORTALEA**

Esta exposición es una selección de las fotografías que el autor ha realizado durante estos últimos cinco años. La mayoría de ellas son **fotos panorámicas** del entorno más cercano de este fotógrafo de Beasain. "Esta gran afición hace que actualmente dedique una parte de mi tiempo a la búsqueda de esos **rincones especiales** que nos rodean", dice.



## VICENTE CERVERA

***El Circo Gran Fele***

**apirilak 30 *abril* - maiatzak 24 *mayo***
**PORTALEA**

**Indalecio Ojanguren Ohorezko Saria bilduma onenari** eraman zuen Vicente Cerverak azken edizioan. El Circo Gran Fele 2007. urtean hasitako lana da eta egilearen esanetan, "asetasun sentsazio gehien" sortu diona. **Zirkoaren mundua** dakar argazkilari valentziarrak oraingoan: bertako trapezistak, dantzariak, malabaristak... Haiekin batera mundu ezberdinetara egindako bidaiak aurkezten ditu. Hitz batean, zirkoaren magia.



## EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEA

**apirilak 30 *abril* - maiatzak 31 *mayo***
**EL AMBIGU**
**PORTALEA taberna**

## JESÚS JAIME MOTA

***Asia***

**apirilak 30 *abril* - maiatzak 24 *mayo***
**PORTALEA**

**Asiaren barruak** kanporatu egin ditu Jesus Jaime Motak. Behin baino gehiagotan egin ditu joan-etorriak kontinente berezi eta urrun hartara. **India** ezagutu du gehien. Baita **Tailandia** ere. **Lekuak eta pertsonak** aztertu ditu. Haien barrenak, zintzotasuna, egunerokoa, indarra, magia, misterioa klik bat eginez harrapatzen saiatu da. **Bertako espiritua** jaso du argazkietan.





## ISABEL DÍEZ

***Al filo de las mareas***

**maiatzak 8 - 31 *mayo*** **TOPALEKU**

*Bióloga marina de profesión y fotógrafa del paisaje natural, esta bilbaina ha recogido en esta colección esos momentos que ofrece la franja que encontramos entre el mar y la tierra:* ***la costa****.* ***Agua, rocas y seres vivos****. Una franja salvaje, según la autora, en la cual se funden imágenes llenas de* ***plasticidad, movimiento, textura y color****.*

## 28 *Trofeo* ARGIZAIOLA Lehiaketa

**apirilak 30 *abril* - maiatzak 24 *mayo***
**CLUB DEPORTIVO**

**Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak** antolatzen du Argizaiola lehiaketa; Euskal Herriko argazki lehiaketen irabazleei ematen zaien saria da hori.

*El trofeo Argizaiola, organizado por la* ***Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco****, premia a los* ***ganadores de los concursos de fotografía*** *del país.*



# DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO XXV. ANTZERKI ERAKUSKETA

**maiatza - ekaina**

Antzerki erakusketak Debabarreneko herri guztietan eskainiko dira. Debabarreneko ikastetxeetako antzerki taldeek eta talde profesionalek hartuko dute parte.

*La Muestra se realiza en todos los pueblos del Bajo Deba con la participación de grupos escolares así como las siguientes compañías profesionales:*

**Artello** (Galicia), **Trompicallo** (Galicia), **Txalo** (Bizkaia), **Sutegi** (Ermua), Grupo de Teatro de Lobiano Kultur Etxea (Ermua), **Dar Dar Produkzioak** (Gipuzkoa) **Hortzmuga** (Bizkaia), **Gorakada** (Bizkaia), **Cambaleo** (Madrid)




Hogeita bost urte beste ditu txikienek txikienentzako egindako antzerki erakusketak. Mende laurden bat bailarako heldu eta txiki antzerkiaren inguruan bilduaz. Horregatik berezia eta oroitzeko moduko erakusketa egiten saiatuko direla aurten adierazi dute antolatzaileek: **"Handikiro ospatzeko beharra sentitzen dugu, baina kontutan izan behar dugu nolako garaian bizi garen. Horregatik, ospakizunek helburu bat izango dute: ikusle askoren gozamen iturri izan daitezela eta erakusketa interesgarria izan dadila"**.

Antolatzaileek gogora ekarri dituzte urte horiek guztiak eta datuak plazaratu dituzte. Adin ezberdinetako 8.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte hogeitabost urte horietan. Laurehun irakasle aritu dira ikasleekin lanean eta mila antzezlan baino gehiagok osatu dute 25 urteotako egitaraua. Guztiak hirurehun funtziotan bilduak. Ez da lan makala orain arte egindakoa beraz.

*La Muestra de teatro escolar del Bajo Deba cumple 25 años. Veinticinco ediciones que han reunido a más de 8.000 alumnos, cuatrocientos profesores y numerosas compañías profesionales. Unas 300 funciones en total. **Teatro hecho por los más pequeños para los más pequeños**.*

*Han sido veinticinco años que por su consistente recorrido merecen la pena celebrar y así lo han planteado los organizadores. **"Veinticinco años son muchos para unas jornadas así. Por eso queremos celebrarlo de un modo especial, solemne. Pero sabemos qué época vivimos y hemos querido organizar estas jornadas para el disfrute de un público lo más amplio posible y con el objetivo de que las jornadas sean interesante"**.*

Informazioa HEZKUNTZA ESPARRUA - *COMPLEJO EDUCATIVO* *Información*
Tel 943 254 465 (09:00 -11:30 h.)
eibarres@terra.es

Antolatzailea: HEZKUNTZA ESPARRUko Egoitza Zentroa eta "NARRUZKO ZEZEN"
*Organiza: Centro de Residencias y "NARRUZKO ZEZEN" del COMPLEJO EDUCATIVO.*

# *XXV MUESTRA DE TEATRO ESCOLAR DEL BAJO DEBA*

***mayo - junio***

## Pulgarcito

**Artello**. Galicia

**maiatzak 4 *mayo*** 15:00

**Hezkuntza Esparrua *Complejo Educativo***

*En la pequeña cabaña del bosque donde vive una familia de leñadores se avecinan dificultades: una enfermedad impide ir al padre a trabajas. Los padres quieren mantener a sus cinco hijos ajenos a esta situación. Pero Pulgarcito, el más pequeño, es observador, y advierte las desgracias que amenazan a los suyos.*

*A pesar de ser pequeño en tamaño, Pulgarcito no lo es en voluntad. Por eso es capaz de convencer a sus hermanos de que, yendo todos juntos y empleando la inteligencia, podrán ayudar a sus padres, aunque para eso tengan que adentrarse solos en el bosque y hacer frente a los peligros que entraña.*



Antzezleak/*Reparto*:
**Rosa Hurtado**
**Santiago Montenegro**

Zuzendaritza/*Dirección*:
**Manuel Pombal**

## Cyrano

**Gorakada**. Bizkaia

**maiatzak 19 *mayo*** 15:00

**Hezkuntza Esparrua *Complejo Educativo***

Nor ez da zatarra sentite behin edo behin? Beste pertsona horri maite dugula esateko beldurra nork ez du sentite?

Musikak eta txotxongiloen plastizitate zoragarriak Cyrano erakusten dute oholtza gainean. Sudur handidun gizona, ezpatari ikusgarria eta olerkigile zoragarria da Cyrano. Hala ere, ez da bere maitasuna adierazteko gai; bere buruaren itxurak lotsatzen du. Bestetik, Cristian dago; ederra eta karismaduna da baina, horrek ere, lotsak gogortuta, ezin dio bere maiteari hitzik zuzendu. Azkenik Roxana dago, nahastuta guztiz. Ezingo ditu itxura eta mamia bereiztu.



Antzezleak/*Reparto*:
**Sonia Millamor**
**Oihane Enbeita**
**Ion Chávez**

Zuzendaritza/*Dirección*:
**Claudio Hochman**
**Alex Díaz**

## El niño, la montaña y el mango

**Cambaleo Teatro**. Madrid

**ekainak 2 *junio*** 15:00

**Hezkuntza Esparrua *Complejo Educativo***

*Salvador adulto cuenta su infancia, y cómo su natural inclinación a la lectura y la escritura hace que su vida cambie. Gracias al sacrificio de su madre, de toda su familia y gracias a su vocación, "Salvadorcito" conseguirá convertirse en el adulto escritor que nos cuenta la historia.*



Antzezleak/*Reparto*:
**Carlos Sarrió**
**Antonio Sarrió**
**Begoña Crespo**
**Eva Blanco**
**Julio C. García**

Zuzendaritza/*Dirección*:
**Carlos Sarrió**

**DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO XXV. ANTZERKI ERAKUSKETA**
***XXV MUESTRA DE TEATRO ESCOLAR DEL BAJO DEBA***

# LA CANTANTE CALVA

**Sutegi**

**maiatzak 8 *mayo*** 20:30 2€ ***teatro* COLISEO antzokia**



**Eugene Ionesco**ren **"La cantante calva"** obra aurkeztuko du **Sutegi antzerki taldeak**. Juan Carlos Colinaren hitzetan hizkuntza unibertsala erabiltzen duen antzezlana da; barrea sortuaz gogoetarako gonbita luzatzen duen lana. **'Absurdoaren Antzerkiaren' funtsa** hain zuzen. Egunerokotasunari egiten dio barre antzezlanak eta egoerarik sinpleenak zein zentzugabe bilaka daitezkeen erakusten du.

***Juan Carlos Colina,*** *Director del la compañía teatral Sutegi*

## *"Es una obra que invita a la reflexión"*




***'La cantante calva', una obra que se sitúa en el 'Teatro de lo Absurdo'***
*Siempre he tenido gusto por lo absurdo y Eugene Ionesco es el padre de lo absurdo. Uno de los mejores ejemplos. La obra es una crítica a la vida cotidiana. Una invitación a la reflexión.*

***Con un lenguaje especial ¿no?***
*Este teatro es un mecanismo de reflexión. Hace pensar sobre nuestros quehaceres cotidianos. Evita la risa fácil y los tacos, tan de moda en este momento. Pero a la vez es un lenguaje universal. Normalmente, al principio de la obra, la gente se sorprende. Pero a medida que avanza la obra entra en ella, va comprendiendo y sale complacida.*

***Ha pasado un año desde el estreno de la obra. ¿Qué tal?***
*Muy bien. Ha gustado mucho. La verdad es que hemos trabajado bien. Hay que tener en cuenta que es una compañía de una casa de cultura. Gente de entre 18 y 62 años que ha decidido apostar por este hobby que es el teatro y se lo toman muy en serio. La mayoría son gente de Ermua y Eibar.*

***¿El actuar tan cerca de casa os supone algo especial?***
*Puede que sea diferente desde el punto de vista de los actores. Pero no a lo que la obra se refiere. Como ya he dicho antes no es un lenguaje local, es universal. El mensaje llega igual en un teatro que en otro.*

# LUR SAGAR

**Dantzaz**

**maiatzak 10 *mayo*** 19:00 8 € ***teatro* COLISEO antzokia**



***Josu Mujika*** *ha trabajado con los jóvenes bailarines de la compañía* ***Dantzaz****. Sus talleres de improvisación son parte de la formación de estos futuros profesionales de la danza. El coreógrafo elgoibarrés apunta a la calidad de los bailarines y a la del espectáculo en especial.* ***Tres coreografías de tres coreógrafos europeos****, esta vez en el Coliseo.*

**Josu Mujika,** koreografoa eta dantza-maisua

## "Dantzari gazte horien maila oso altua da"

**'Lur Sagar' zer da?**
*Dantzaz* konpainiaren azken lana. Konpainia berezi baten lana. Izan ere, dantzari profesionalak izango direnentzat tranpolin edo zubia da *Dantzaz*. Dantzari gazteak profesionalen bezala egiten dute lan konpainian, haientzat aukera bat bilatzen duten artean. 'Lur Sagar' orain momentuan *Dantzaz*-ek abian duen lana da. Beste herri batzuetan aurkeztu da eta arrakasta eta kritika oso onak jaso ditu.

**Merezi du?**
Harrituta geldituko da ikuslea gazte horien kalitatearekin. Baita ikuskizunaren maila altuarekin ere. Ikusleriak eskertuko du. Gure herriko dantza panoraman, batzuetan gauza interesgarri asko ikus daitezke baina askotan ez diote ezer esaten ikusleriari. Publikoa sortu eta trebatu egin behar da: mimatu. Ikuslea antzokira doanean, trukean zerbait jaso behar du; energia edo beste sentsazioren bat, zerbait. Kalitatezko ikuskizunak eskaini behar zaizkio baina era berean arrotzak egingo ez zaizkionak.

**Zer ikusiko dugu?**
Hiru koreografia dira Lur Sagarrek batzen dituenak. 'En Jaar Eden', Gäel Domenger koreografo gaztearena; 'Songeurs', Christophe Garciak sortua; eta Itzik Galili maisuaren 'Earth Apples' (Lur sagarrak, patatak esan nahi du). Honek ematen dio izena ikuskizunari. Lurrari oso lotua dagoen koreografia da azken hori.

**Zuretzat zer nolako esperientzia izan da Dantzaz-en aritzea?**
Ederra. Profesionaltasunaren mundura bueltatzeko aukera eman dit. Bertako giroa dastatzeko aukera, beste behin. Eta nire egunerokora berriro orduko teknikak ekartzekoa. Baita oroitzapen pilo bat ere.

# *CINE CLUB* EIBAR ZINE KLUBA

***teatro* COLISEO antzokia** 21:30 3,70 €




## FLAME Y CITRON

**maiatzak 5 *mayo***

Dinamarca-República Checa-Alemania 2008 130 m.
Zuzendaritza/*Dirección*: **Ole Christian Madsen**
Antzezleak/*Reparto*: **Thure Lindhardt, Mads Mikkelsen, Stine Stengade**

Kopenhague, 1944. Danimarkako herriak gudaren bukaera nahi du. Hala ere, badira bi gazte erresistentziarekin borrokan hasteko prest direnak: Bent Faurschou Hviid, *Flage* gaitzizena duen 23 urteko gaztea batetik eta, bestetik, bere lagun Jorgen Haagen Schmith edo *Citron* ezizenekoa, 33 urtekoa. Nazien eta beraien kide danimarkarren aurka egiteko prest daude gazteak.

*Copenhague, 1944. Mientras la población danesa desea que la guerra acabe cuanto antes, Bent Faurschou-Hviid, de 23 años (Flame) y Jørgen Haagen Schmith, de 33 años (Citron), ponen sus vidas en riesgo para luchar en el grupo de resistencia Holger Danske que combate clandestinamente contra los nazis y sus colaboradores daneses.*




## MI NOMBRE ES HARVEY MILK

**maiatzak 12 *mayo***

USA 2008 128 m.
Zuzendaritza/*Dirección*: **Gus Van Sant**
Antzezleak/*Reparto*: **Sean Penn, Emile Hirsch, Josh Brolin**

Bere benetako izaerari ihes egin behar izan dio orain arte Harveyk eta, nekatu da dagoeneko. Wall Street-en zuen lanpostua utzi du eta 'armairutik irteteko' prest dago. San Frantziskoko Castro auzora joango da bizitzera bere lagun Scott Smithekin. Argazki kameren denda bat zabalduko du Harveyk eta auzoko elkargune bihurtuko da laster batean. Bere auzokoek gustura hartu dute gune berria, ez baitute elkartzeko beste tokirik izango.

*Cansado de huir de sí mismo, Harvey deja un puesto ejecutivo en Wall Street para salir del armario y mudarse al barrio Castro, de San Francisco, con su eterno compañero Scott Smith. Abre una tienda de cámaras que no tarda en convertirse en el punto de encuentro del barrio, cuyos vecinos no tienen otro lugar para reunirse en una época particularmente rígida.*




## SÓLO QUIERO CAMINAR

**maiatzak 19 *mayo***

España-México 2008 130 m.
Zuzendaritza/*Dirección*: **Agustín Díaz Yanes**
Antzezleak/*Reparto*: **Victoria Abril, Elena Anaya, Carlos Bardem**

Gloriak, Aurorak, Palomak, Anak eta bere ahizpak porrot egin dute lapurreta saiakera batean. Aurora atxilotu egin dute eta kartzelan sartu. Bitartean, Mexikotik etorritako trafikatzaile batzuk helduko dira Espainiara. Ana prostituzioaren alorrean dabil lanean eta Felixek (Jose Maria Yazpik), trafikatzaileen buruak, Ana hartuko du lanerako. Laster berarekin ezkontzeko eta Mexikora joateko eskatuko dio Anari.

*Gloria, Aurora, Ana, su hermana y Paloma, han fracasado en su intento de robo por el que Aurora es detenida y encerrada en prisión. Mientras tanto, unos traficantes mexicanos han llegado a España y Ana, que se gana la vida como prostituta, es contratada por el jefe de la banda, Félix (José Mª Yazpik), que le ofrece casarse con él e irse a vivir a México.*




## LA OLA

**maiatzak 19 *mayo***

Alemania 2008 101 m.
Zuzendaritza/*Dirección*: **Dennis Gansel**
Antzezleak/*Reparto*: **Jürgen Vogel , Frederick Lau, Max Riemelt**

Gaur egungo Alemania. Rainer Wenger irakaslea da eta proiektu berri bat bururatu zaio: bere ikasleei gobernu totalitarioek nola funtzionatzen duten ikasteko esperimentua jarriko du martxan. Emaitza tragikoak izango dituen esperimentua izango da.

*Alemania hoy. Durante la semana de proyectos, al profesor de instituto Rainer Wenger se le ocurre la idea de un experimento que explique a sus alumnos cuál es el funcionamiento de los gobiernos totalitarios. Comienza así un experimento que acabará con resultados trágicos.*

# *CINE CLUB* EGO IBAR ZINE KLUBA

**Hezkuntza Esparrua** 17:30 - 21:00 2 € ***Complejo Educativo***




### ESCONDIDO EN BRUJAS

**maiatzak 7 *mayo***

Reino Unido-Bélgica 2008 107 m.

Zuzendaritza/*Dirección*: **Martin McDonagh**

Antzezleak/*Reparto*: **Colin Farrell , Brendan Gleeson, Ralph Fiennes**

Ray eta Ken hiltzaile profesionalak dira. Brujas hirira joango dira atseden hartzera, haien buru den Harryk aginduta. Bi asteko oporrak izan behar zituzten baina Ray eta Ken ez dira hiri ederrera moldatzen. Brujaseko arkitektura gotikoa, ubideak, kale bereziak eta bertako lasaitasuna gehiegizkoak dira bi lagunentzat. Bitartean, Rayk ezingo ditu beraien azken erailketa gogorreko irudiak burutik kendu. Brujas hiria gorrotatzen hasiko da.

*Para los asesinos a sueldo Ray y Ken, la ciudad de Brujas podría convertirse en un destino sin retorno. Después de un trabajo complicado, Harry, el jefe londinense de ambos, les manda a descansar dos semanas a esta ciudad, que parece sacada de un cuento de hadas. Sintiéndose totalmente fuera de lugar entre la arquitectura gótica, los canales y las calles adoquinadas, los dos asesinos pasan el día haciendo de turistas. Ray, que no consigue olvidar las brutales imágenes de su último trabajo en Londres, odia la ciudad.*




### CUESTIÓN DE HONOR

**maiatzak 14 *mayo***

USA 2008 125 m.

Zuzendaritza/*Dirección*: **Gavin O´Connor**

Antzezleak/*Reparto*: **Edward Norton, Noah Emmerich, Jon Voight**

Lau polizia hilko dira tiroketa batean New Yorken. Hiltzaileak departamenduko polizia guztiak dantzan jarri ditu. Adi egon beharra dute. Bertako Tierney detektibe buruak bere seme Rayri (polizia hau ere) gertaera ikertzeko eskatuko dio. Rayk zalantzak ditu ordea; ez du kasua bere gain hartzerik nahi. Hildako poliziak bere anaia Francis eta koinatuaren agindupean ari ziren lanean. Hasieran drogen inguruko tirabira bat zirudienak bestelako itxura hartuko du gero. Erailketak poliziarekin daude lotuta eta arrasto guztiek Francisengana bideratzen dute Ray.

*Durante una emboscada cuatro policías de Nueva York mueren. El asesino de policías ha puesto en alerta a todo el Departamento y el Jefe de Detectives Tierney pide a su hijo Ray, también detective, que investigue el caso. Ray no está muy seguro de querer llevar la investigación porque los policías muertos sirvieron bajo las órdenes de su hermano Francis y su cuñado. Lo que en principio parecía un caso de drogas mal resuelto, pronto deriva en un soplón de la policía. Las pistas apuntan a Francis.*

## ARGAZKILARITZA MAIATZEAN



## DIAPORAMA ETA ARGAZKI ERAKUSKETA
## *EXHIBICIÓN DE DIAPORAMAS Y FOTOGRAFÍAS*

**Eibarko dendetan** ***Comercios de Eibar***

Laguntzailea / *Colabora*: Eibar Centro Comercial Abierto

## ARGAZKI RALLYA RALLY FOTOGRÁFICO

**Zuri-beltzean eta digitalean**

*Blanco y negro y digital*

**maiatzak 24 *mayo*** 08:30-14:30 **Club Deportivo**

## Sostoa 25 urte. KONTZERTU BEREZIA

**Sostoa abesbatza, abeslari ohiak eta CIELITO musika banda**

**maiatzak 30 *mayo*** 20:30 2 € ***teatro* COLISEO antzokia**



# Ahotsak eta musika-tresnak batean

Sostoa abesbatzak 25. urteurrena ospatzen ari den honetan hainbat ekitaldi ezberdin ari da eskaintzen. Hala, maiatzean Cielito musika bandarekin batera eskainiko dute kontzertua. **"Urteurrena ospatzeko orduan abesbatzako kide ohien parte hartzea eskatu genuen eta maiatzeko kontzertuan ere gurekin egongo dira"**, azaldu du **Cristina Telleria** abesbatzako presidenteak. Hamabost korista ohi baino gehiagok hartuko du parte kontzertuan.

Kontzertuak lau zati izango ditu eta horietako batean Cielito banda eta Sostoa abesbatza elkarrekin arituko dira, kantuan eta jotzen. **"Bi zuzendarien arteko elkarlanaren fruituetako bat izango da. Biak aritu dira kontzertu hau prestatzen"**, kontatu du Telleriak.

Abesbatzak kantatuko dituen pieza gehienak aurrez kantatu izan dituztenak izango dira. **"Errepertorio zaharretik egindako aukeraketa bat izango da batik bat; kide ohientzako ezagunak direnak eta baita entzuleentzako ere"**, gehitu du.

## UMEEN BERTSO JAIALDIA

**maiatzak 14, 28 *mayo*** 18:00 1€ ***teatro* COLISEO antzokia**


***Antton Aldalur***

Aurten ere, ikastetxeetako bertsolari txikiak taulara igotzeko prest daude. **Maiatzaren 14an eta 28an** Iturburu, Amaña, Urkizu, Arrateko Andra Mari, Aldatze eta La Salleko ikasleek hitzordua dute Coliseoan.

# PIANO KONTZERTUA *CONCIERTO DE PIANO*

**Álvaro Garrido Martínez**

**maiatzak 29 *mayo*** 20:30 3 € ***teatro* COLISEO antzokia**

**Álvaro Garrido Martínez** 11 urte zituenean hasi zituen piano ikasketak. Ondoren, kanpora jo zuen musika ikasketekin jarraitzeko eta Donostian aritu zen. Orain **Musikenen** ari da **piano garaikideko** ikasketak burutzen.



**Egitaraua - *Programa***

**Sonata KV.283**
(W.A.Mozart)

**Ballade op.52 no.4**
(F. Chopin)

**Preludes**
(C. Debussy)

**Sonata op.83 no.7**
(S. Prokofiev)

Iraupena - *Duración*: **60 min**

***Álvaro Garrido Martínez*** *comenzó sus estudios de piano a los 11 años en Eibar con Maite Bilbatua. A partir de los 13 años recibió clases de Laurentino Gómez en San Sebastián, donde más tarde finalizó grado medio con Cristina Navajas. Actualmente termina su* ***licenciatura en Musikene*** *(Centro superior de música del País Vasco) donde ha recibido clases de Gustavo Díaz-Jerez, Marta Zabaleta y Miguel Borges así como de Ricardo Descalzo en la especialidad de* ***piano contemporáneo****.*
*Ha recibido Masterclasses de Claudio Martínez, Alicia de Larrocha y diversas personalidades del ámbito pianístico. Ha sido galardonado numerosas veces en concursos tales como el "Ciudad de San Sebastián", "Gerardo Diego" o "Sant Anastasi", del que fue ganador.*

## *banda de txistularis* USARTZA txistulari banda

**kontzertua** **concierto**

**maiatzak 24 mayo** 12:30 **UNTZAGA**

# XLIV. EUSKAL JAIA

**maiatzak 19 - 24 *mayo***

## Ezinbesteko hitzordua







**XLIV. Euskal Jaia** prest dago. **Eibarko Klub Deportiboaren** eskutik **maiatzak 19tik 24ra** luzatuko da urteroko hitzordua. Aurten, **Mikel Laboa** oroituz hasiko da 44. edizioa. **Pako Aristi** idazleak zendu berria den abeslariaren bizitzaren inguruko hitzaldia eskainiko du Arrate Kultur Elkartean.

Larunbatean, berriz, artisauen eta baserritarren azoka ospatuko da. Euskal Jaiaren zutabeetako bat izaten da azoka. Batik bat, bere inguruan bestelako hainbat ekitaldi batzen direlako: **"Artisau eta baserritarren azokak badu bere pisua Euskal Jaian. Eibarko baserritarren eta artisauen lana ikusteaz gain, azokaren inguruan beste hainbat ekitaldi batzen dira: tailerrak, herri kirolak, talo postua, bertsolariak, eskolen arteko herri-kirol lehiaketa, trikitilariak... Azokaren inguruan giro oso bat sortzen da eta horrek goiz polit bat pasatzeko aukera eskaintzen du"**, azaldu du **Mariano Luque**k Euskal Jaiko antolatzaileetako batek.

